

**IMANOL ENBEITA RENTERIA (1884-1946)
"URRETXINDORRA"REN ANAIA*****Sarrera:***

Imanol Enbeitaren bila euskal literaturako liburuetara nahiz bertso eta olerkiz ari den entziklopedia ezberdinetara joz gero, nekez aurki genezake Imanoli buruz gauza aipagarriarik. Ez ote du merezi zertxobait gehiago Imanolek gure euskal kulturari? edota ez ote dute itzali "Urretxindorra"ren eta beste Enbeitatar ospetsuagoen distirak ezkutuago gelditu den gure Imanolen argia? Orain egiten dugun Imanolen aurkezpena irakurri ondoren, Imanolek askok uste baino gehiago idatzi zuela ohartuko gara, eta gerra aurreko euskal kulturaren berpizkundean bere aletxoak eskaini ziola Euskal Herriari.

Lantxo honen hasiera azaldu behar dugu orain. Edurne Enbeita Goiria zenak, "Urretxindorra"ren alabak, asko miresten zuen Imanol. Behin baino sarriago esan izan zion honen seme Joseba Imanoli: Inork merezi badu zure aitak merezi du beraren lanak biltzea; zure aita, idazle legez, gure aita baino idazle hobea zen. Edurne bera hasi zen, bada, Imanolen paperak biltzen. Joseba Imanoli lan zaila iruditu zitzaion, baina Edurnek aurrera egiten zuela ikusirik, bera ere hartara jarri zen buru-belarri.



Imanol Enbeitaren baserria.

Edurnek bildurik zituenak eskuratu eta harrezkero bera lotu zitzaion egiteko horri. Hau, bere aitaren lanak fotokopien bidez eskuratu nahirik ari zela, Julen Urkizak bertso eta olerkien bibliografia baturik zuela jakin zuen Euskatzaindiako Azkue Bibliotekan..., eta bere lana errazteko eta osotzeko honengana jo zuen. Joseba Imanolek 400 bat folio erakutsi zizkion, eta lehenengo egitekoa fotokopia horietan zer falta zen ikustea zen... Orduantxe bururatu zitzaigun Imanol Enbeitari buruz *Karmel* aldizkarian aurkezpen interesgarri bat egitea, haren lanaren ahalik eta bibliografiarik osoena eskainiz... Joseba Imanolek, ideia honekin pozik, bere paperak utzi zizkigun, baita bere aitaren datu biografikoak ezagutarazi ere. Hemen garbi aitortu behar dugu bera izan dela lantxo honen hasiera-emailea... Horrela, aitari berea eman nahi izan dio; hau da, aita omendu nahi izan du, merezi duen bezala...

Hasieran esan dugunez, Imanoli buruz gutxi idatzi izan da; gutxi eta batzuetan zertzelada okerrak emanez... Bi Karmeldarrek hitz egiten digute batez ere hartaz: S. Onaindiak (*Milla eus-*

kal-olerki eder, 689-692, *Euskal literatura*, V.t., 32-35; *Bizkaiko Olerkariak*, 128-131), eta Lino Akesolok (*Idazlan guztiak*, I, 570-575, 1988an *Zer* aldizkarian argitaratutakoa, 118.zk., 2-4), eta *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*-k (Enciclopedia, X. t., 485, eta Enciclopedia: *Literatura*, III, 273-275: Enciclopedia —Jon Bilbao-, *Eusko Bibliografia*, III. t., 135)...

L.Akesolok honela dio bere idazlanaren hasieran: "Ona euskal-idazle bat, gitxi ezagutua nire ustez, gure idazleon artean zor jakon maillarik autortu ez jakona". Zenbat eta nola idatzi zuen ohartzen bagara, hau da, 225 bertso edo olerki, eta 230 prosazko idazlantxo..., aipamen handiagorik zor zitzaiola gauza nabaria da. Baina, sarri gertatzen dena da hau: egunkari eta aldizkarietan soilik idazten bada, lanak galdu eta ahazteko arriskua dago betiere...

Enbeitatarren ospea Euskal Herrian batez ere bertsolari diren aldetik izan da, eta ospe horren atal onentxoenetarikoa Imanoli dagokio. Imanol bertsolari eta bertso-olerki idazle izanez gainera, kazetaritzan ere lan interesgarria egindakoa dugu.

I. Haren bizitza eta garaia

1. Zetzelada biografikoak

Imanolen sorterrria Muxika-Areatza izan zen; 1884ko urriaren 24an jaio zen, Usparitxa auzoko Jauregi baserrian.

Haren gurasoak Joan Antonio Enbeita Elgezabal eta Maria Renteria Mintegia izan ziren. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Antonio, Gregoria, Pedro (Kepa "Urretxindorra"), Frantziska, Imanol, Leandro eta Santiago.

Etxea bera bertsolari-eskola ezin hobea zuen: Aita bertsolaria, anaia zaharragoa Kepa eta gazteagoa Santiago ere bertsolariak; halako giroan bera era laster bihurtuko zen bertsolari. Enbeitatarrek bost belaunalditan bertsolari jatorrak sortu dituzte; hau benetan harrigarria da, eta ez dakigu horrelako bertsolari-leinurik Euskal Herrian besterik izan den.

Joan Antonio Enbeita "Txotxojeuri"	Kepa Enbeita Renteria "Urretxindorra" (1878-1942)	Balentin Enbeita (1906-1986)	Kepa (Agustín) Enbeita	Abel Enbeita	Zigor eta Oier Enbeita
			Libe Enbeita	Moises Enbeita	Olatz Egiguren
				[Jose Antonio Enbeita]	Xabier eta Ardatz Enbeita
				Jon Enbeita (1950-)	Onintze Enbeita
			Sabin Enbeita (1908-1990)		Zihara eta Oihane Enbeita
	Imanol Enbeita Renteria (1884-1946)				
	Xanti Enbeita Renteria				

Gaztetan Bujedo-n (Burgos) egin zituen urte batzuk ikasten...

Argitaratu diren Imanolen lehen bertsoak *Ibaizabal* astekariak eskaini zizkigun 1903an: lehengoa "Dama gazte bati", seigarrena "Bei zaarraren kontuen amaia"... 19 urte zituen orduan... Urte horretan bi aldizkarik argitaratu zituzten haren bertso-lanak: *Ibaizabalek* eta *Baskoniak*...

Kepa sei urte zaharrago genuen, eta 23 urtekin hasi zen bertsoak aldizkarietan argitaratzen: bat 1901ean, hiru 1902an eta bi besterik ez 1903an; guztiak *Ibaizabalen*, lehengokoa izan ezik (*Patrian*). Azken urte honetan zortzi argitaratu zituen Imanolek, eta horietatik bat *Baskoniak* berrargitaratu zuen urte berean... Ikusten denez, bertso eta olerki indarrez zetorren Imanol... Eta gogoan izatekoa hau ere: Kepa bera izan zela bere anaia Imanoli "Urretxindorra" izenordea jarri ziona..., gero, jakina! Kepa geratuko zen hain ezaguna den izenorde horrekin. Ondorengo urteetan ere jarraitu zuen bertso-olerkiak aldizkarietan argitaratzen...

Espanian soldadutzarik ez egitearren, 1908an Hale-ra (Argentina) ihes egin zuen Keparen agitiarekin. Eta hau harrigarria!: hi-

labete batzuk geroago, soldadutzako zozketa egiterakoan, Imanoli libre egokitu zitzaion... Hale-n ahal zuenari heldu behar eta lehenengotan bizargin baten laguntzaile izan zen; gero enpresa batean kontulari sartu zen.

Argentinan bertso eta olerkiak idazten jarraitu zuen aldizkari ezberdinetan, 1920an bereziki: Euskaria, Baskonia, Bizkaitarra, Gipuzkoarra eta Euzkera aldizkarietan, baina batez ere Euzkadin. Lehiaketa batean saritzat domina bat eman zioten. Domina hori beraren familiaren esku dago eta hauxe jartzen du: "Premio Euzkadi, Sociedad de Socorros mutuos y Recreativa. Gran Concurso Euzkaro. Febrero 1914. Nekotxea".

1921ean, 13 urte Argentinan igaro ondoren, Euskal Herrira itzuli zen. Urte honetan ezkondu zen Urkiolan Balentina Barrera gernikar neska gaztearekin. Gernikan bizi izan zen bere emaztearekin. Hiru seme-alaba izan zituzten: Joseba Imanol,



Imanol eta bere emaztea.

Miren Itziar eta Miren Gotzone. Gernikan ere kontularitzan lan egin zuen.

Ondorengo bost urteetan (1922-1926) ez zuen askorik argitaratu: zortzi bertso-olerki eta prosazko hiru lantxo.

1927. urtean hasi zen haren idaz-emaiza nahiko ugaritsua... gerrararte. Eta prosazko lanak batez ere 1934-1936. urteetan. 1932tik 1937ra Bilbon zuen egoitza Artekale, 50ean. Gerratean haren izeba batek altzari eta paperak harturik, Gernikara eraman zituen. Hara iritsi zaneko, faxistek alto eman eta zeraman guztia kendu zioten. Altzariak beraien artean banatu zituzten eta paperak erre.

Gerraren eraginez, 1937an, Frantziara bizitzera joan beharra izan zuen. Eta 1941ean Bizkaira itzuliz, Gernikan jarri zuen bizilekua bere sendiarekin batera. Hilero agertu behar izaten zuen poliziaaren aurrera. Gero beldurrez bizi izan ziren; inora ere ez ziren agertzen elkarrekin, susmo txarrak piztuko zituztelakoan. Txarrago dena: inork ez zion lanik ematen. Azkenez, Gergori Arrarte Josulagunak eman zion "Mensajero"n inprimategiko probak zuzentzeko lana eta haren adiskide min egin zen eta horrela bizipoza eta adorea berreskuratu zituen. Josulagunak 51 urte bete zituenean, olerki bat egin zion esker onez.

Hainbat euskaltzale ospetsurekin izan zuen harremana. Haren seme Joseba Imanolek esan digunez, bera mutikoa zela, Aita Martin Uriarte sermolari ospetsu eta euskal idazlearekin solasaldi gozo eta luzeak izaten zituen Begoñako Karmelon. Bien bitartean mutikoari baratzean zehar ibili eta sagarrak jateko baimena ematen zion Aita Martinek... Haren poza!. Gauza bera Lekeition ere R.M. Azkuerekin...

Imanol 1946ko azaroaren 7an hil zen Gernikan 62 urterekin...


Izaera aldetik nolakoa dugu Imanol? Kepa haren anaia plazagizon zela badakigu, baina Imanol ez zen alde horretatik haren antzekoa; Imanol heldurriago, isilago genuen, eta ez hain plazagizon... Horregatik plazetan bertso-kantari jarduteko bere anaiak baino eragozpen handiagoak izan zituen; gainera aho-

tsak ere ez zion horretarako asko laguntzen... Pertsona oso erlijioso eta Jainkozalea zen. Etxean errosarioa errezatzeko ohiturari zintzotasunez eusten zion. Seme-alaben aurrean zentzu ona eta bere jokaeran ziurtasuna erakusten zituen.

2. *Bere garaiko seme*

Imanol batez ere gerra aurreko bertso eta olerkigile eta idazle dugu (1903-1935). Garai hau berezia eta pizkunde-airez zetorrena zen euskarari dagokionez.

XX. mendeko lehen hamarkaderan (1900-1930) euskara eta euskal kulturaren pizkundera nabari da. Euskal mugimendu po-




Imanolen seme-alabak.

litikoari estu-estu loturik zegoen hizkuntza; politika eta euskal hizkuntza nazionalaren aldeko sentimendua bata besteari esku emanik bezala doaz haziz XIX. mendearen azken aldera eta XX.aren hasieran. Hain zuzen ere garai hauxe da Imanol Enbeita gazte zenekoa.

Orduko pertsona ospetsuen lanak gertatu ziren hainbat ekintza herriren eragile; esaterako, Arturo Kanpionen lan historikoak (1854-1937). Hala ere Sabino Arana Goiri (1865-1903) izan zen bereziki bi euskal mugimendu nazionalak indar bizi-biziz bereganatu zituen: politikoa alde batetik eta kultura eta hizkuntzarekiko bestetik... Pizkunde horri indarra emateko politika, hizkuntza, literatura etab. aztertzen zituzten liburuak idatzi zituen. Giro hau edoski zuen Imanol Enbeitak, eta horren eraginak barrubarruan ukitu zuen. Berak idazten duenez, S.Arana-Goiri izan zuen maisu eta gidari... Ezin ahaztu euskal kulturaren garai honetako beste pertsona aipagarri batzuk ere, esaterako, R.M.Azkue (1865-1951), Julio Urkixo (1871-1950)...

Pizkunde honetan Foru Aldundiek ere zerikusi handia izan zuten, batez ere ikastolak sortzerakoan eta estatuko gobernuaren aurrean euskararen alde gogor egiterakoan... 1925ean kultur ekintzak geldidune larria izan zuen Primo de Rivera-k (1925) ezarritako oztopoengatik... Hala ere literatur ahalegina bizituz



Kepa Enbeita "Urretxindorra".

joan zen, Imanol Enbeitarengan batez ere, honen literatur-ekin-tza oparoena 1927an hasten delarik...

Garai honetan olerkigintza eta bertsolaritzari buruzko egoera sozio-kulturala azpimarratu nahi genuke. Imanolek ezagutzen zituen euren lanekin hau guztiau suspertu zutenak: Gracian Adema "Zalduby"k (*RIEV*-en, *Euskal Erria, Eskualduna*, etab. argitaratu zituen), Felipe Arrese Beitia (*Ama Euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo, 1900; *Asti-orduetako. Bertsozko Lanak*, Bilbo, 1902; *Olerki sortatxua*, Zornotza, 1930); Jose Manuel Etxeita (*Au, ori ta bestia. Neurtitzak*, Durango, 1913); Antonio Arzak (*Amona*, Donostia, 1900); Emeterio Arrese (*Nere bidean*, Tolosa, 1913; *Txindor*, Donostia, 1928); Jules Moulier "Oxobi" (*Boz-Oibu! Deidar! Nigar!*, Baiona, 1913; *Alegiak*, Baiona, 1926); Luis Jauregi "Jautarkol" (*Biotzkadak*, Pamplona, 1929); Bingen Aizkibel (*Urretxindorra*, Bilbao 1918); Sabino Arana (*Olerkiak*, Bilbao, 1919); Gabirel Manterola (*Goi-izpiak*, Zornotza, 1921); Robustene Mujika (*Miren Itziar'ri idazkiak eta olerkiak*, Zornotza, 1923); Alejandro Bilbao (*Biotz abeslari*, Zornotza, 1927)...

Kultur mugimendurik garrantzitsuenetarikoa *Fuskaltzaleak* izenekoa zen, eragile nagusia Jose Aristimuño "Aitzol" (1896-1936) zelarik... "Euskal Olerki Egunak" antolatu ohi ziren; 1930ean Errenterian, 1931n Tolosan, 1932an Hernanin, 1933an Urretxun, 1934an Zarautzen, horien fruiturik hoberenak edota lan hautatuak, jaiari edo urteroko lehiaketari zegokion liburuan biltzen zirelarik..

Bertsolarien egunak ere antolatzen ziren. Garai horretan bertsolaritzak ere pizkunde joria izan zuen, batez ere "Txirrita" Joxe Manuel Lujanbio eta "Urretxindorra" Kepa Enbeitaren belau-naldiari esker, luzaro gabe haiei "Uztapide" Manuel Olaizola, "Basarri" Iñaki Eizmendi, etab. gehitu zitzaizkien. Bertsolaritza bere maila hobetuz zihoan eta jendearen aurrean, bereziki kul-turaz jantzia zen jendearen aurrean, onarpena lortuz... 1935ean Euskal Herriko lehenengo txapelketa antolatu zen Donostian, urtarrilaren 20an; "Basarri" izan zen txapelkun. 1936ko urtarrila-ren 19an, Donostian bertan, bigarren txapelketa ospatu zen;

"Txirrita" izan zen txapeldun eta "Uztapide" bigarren; "Txirrita" urte horretan bertan hilko zen.

Imanol Enbeitak hainbat aldizkaritan idatziriko lanen bidez esku hartzen du euskal kulturaren mugimendu bizi honetan. Baina gerrateak haren literatur ekintza nahiko oparoari, haren belaunaldiarenari bezala, azken tristea ematen dio. Gerrak ankerki moztu zituen euskal kultur ekintza guztiak... Kultur bizitza eta euskara indarberritzen zituzten hainbat aldizkariren heriotza okarri zuen... Frantziara ihes egitean, gainera, eskuizkributan zituen literatur lan asko galdu zituen...

II. Bertsolari, olerkari, idazle

1. Idazlea

Imanol Enbeitaren literatur emaitza ahaztea eta haren lana aintzat ez hartzea, estiloa etab. ez ezagutzetik dator neurri batean behintzat... Hain zuzen ere, haren lanari buruz gauzak garbiago izan ditzagun, emaitza hori agertuko dugu argibide estatistiko eta guzti, baina labur-labur bada ere, idazle den aldetik duen estiloa ere aztertuko dugu...

Lehenengo eta behin bertsolari izan zen hura, eta hark kantaturiko bertsoetatik gutxi-gutxi batzuk baizik ez dira gordetzen... Beste batzuetan bertsoak idatzi ohi zituen eta zenbait olerki txiki ere bai... Dena dela, ez da ahaztu behar hitz lauz ere nahiko idatzi zuela, kazetari-lanean..., *Euzkadi* egunkarian batez ere.

Haren idazlanen bila aldizkari eta egunkarietan jardutean, ikertzaileak izaten duen lehen oztopoa izenarena da; hau da, berak sinatzean erabili ohi zuen izen edo izenordea: Garbi-nai, Ibon, Uribitarte'tar Ibon, Imanol, Enbeita'tar Imanol, E'tar I., Muxika'ko Txepetxa...

Bildutako argibide biografikoen arabera, Imanolek 225 bertso edo olerki-lan idatziko zituen euskaraz gutxi gorabehera, eta egunkari eta aldizkarietan idatzitako idazlanak 230etik gora izan-

go dira. Euzkadi egunkaria izan da ezbairik gabe olerkirik eta batez ere idazlanik gehien idatzi izan zuen argitalpena. Abertzale-egunkari honetan sarri-sarri idatzi ohi zuen hitz lauz 1934-1936. urteetan, 1927-1931. urteetan olerkiz egin zuen era berean... Aita Linok bere idazlanean esaten digunez: "Emen, *Euzkadi* egunkarian emon eban Imanolek bere euskalzaletasun sendoaren neurria, emen erakutsi eban bere lanerako gogoa eta kemená".

2. Bertso eta olerki aldizkari eta egunkarietan

Haren ekoizpen lirikoaren eta hedaduraren berri izan dezagun, argibide interesgari batzuk jarriko ditugu. Bertso eta olerkiek 226ra jotzen dute gutxi gorabehera, haietatik 19 edo, aldizkari ezberdinetan errepikatzen direlarik. Haren bertsoak 24 aldizkaritan argitaratu ziren; baina gehien honako hauetan argitaratu zuen (aldizkariak laburturik aipatzen ditugu): *Euzkadin* 109 olerki inguru, *Jaungoiko-Zalen* 32 inguru, *Euzkerean* 30 inguru, *Baskonian* 9, *Ibaizabalen* 8, *Euskarian* 7, *Patrian* 7, baina beste aldizkari hauetan ere argitaratu izan zuen: *Aberri*, *Argia*, *Baserritarra*, *Bertsolariya*, *Bizkaitarra-BBB*, *Bizkaitarra-SN*, *Endoreak*, *Euskalduna*, *Euzko*, *Euzko Deya-A*, *Euzko Deya-P*, *Gipuzkoarra*, *Jesusen*, *Laurak bat*, *Lecaroz*, *Lugintza*, *Olerin*...

Gogora dezagun "Urretxindorra"k, Imanolen anaia ospetsuak, aldizkari eta egunkari ezberdinetan argitaraturiko bertsoak 400-edo izan zirela.

Imanolek olerkirik ugarien idatzi zituen urteak hauek izan ziren: 1920 (20), 1927 (10), 1928 (49), 1929 (45), 1930 (12), 1931 (15)... Ondorengo urteetan hitz lauz edo prosaz idazteari eman zion gehiago...

3. Estiloa bertso eta prosan

Haren estiloa behar bezala aztertzeko, orduko ingurumarian, orduko giroan sartzea ezinbestekoa da, gaur eguneko iritzi-moldeetan lehengoa isurtzera jo ez dezagun. Gerra ostekoentzat

nahiko hurbilekoa da giro hori, gutxi-asko ezagun egiten zaiguna, baina beti dago gaurkoaz nahasteko arriskua... Dena dela, garai hartako lorratzetik alde egin gabe ibiltzeko ahaleginez, jo dezagun aurrera.

Orduko giroan hobeki murgitzeko, Imanol Enbeitak erabili zituen gaiak aipatuko ditugu handi-handika, garai hartako idazleengan txitean-pitean errepikatzen baitira hauek edo antzekoak. "Maitasuna, Aberrija ta Uskurtza [erlijioa] ixan dira gairik ugarijenak olerkariarentzat, neuretzako be bardin" zioen Lauaxetak (*Bide-barririk*, 95 orr.). Imanol Enbeitaren gaiak ere gune horietan koka daitezke, baina, askotan, goi-mailako olerkiak idazteko uzirik edo xederik ez zuen, bertso jarri txukun eta politak idaztekoa baizik. Horregatik gaiak ere egunerokoagoak direla esan dezakegu. Begirada arin eta soil batez gune hauek ikus genitzake Imanol Enbeitaren bertso eta olerkietan:

Gune lirikoa: izadia, maitasuna, urtaroak, ametsak, bizitzaren, heriotzaren eta denboraren joanaren gai sakon eta betikoak... Hona izenburu batzuk:

Ames bat; Ara nun seintxu batek; Artzaña naz; Biotzkadak; Edurra; Negua; Nere gogo-baratza; Udabarrija....

Gune erlijiosoa: *Arima bat baño ez dot; Auts eguna; Deun Joseba eguna; Deunoro-jaya; Donoki eder-ederra dago; Errukizko Ama neskutsa'ri abestiya; Gabon abestiya; Guazen Belen'era; Josu'ren Ama, neure Ama be bai-da; Josukristoren gurutza...*

Gune abertzalea: *Agur euzkelerrija; Agur neure Euzkadi maitiari; Arana'tar Sabiñen oroimengarria; Arana-Goiri'tar Sabin'an gomutan!; Arana-Goiri'tar Sabin'ari; Azi txarra zabaldua dago; Bizkaitarren poza; Baltz ez zuriak; Batasuna!; Sabin' onaren baratza lorez betiari; O! Aberri gaizua!,...*

Gune euskaltzalea ere oso oparoa da, baita pertsona, herri eta leku aipagarriak goraiatzeko ondutako bertso eta olerkiena ere. Hauen artean, senitarteko eta adiskideei ateratako bertsoak ere ageri dira, bertsolari-giroan ohikoa denez; orobat gizarteko eta sendiko gertakari gogoangarriek eraginik ondutakoak. Ira-

<p>Osaba lepo, etorri az! kene Balondin matia, etorri az, bai, etxera, emaztia ta sornia laztantia besaitatzera.</p>	<p>Emazte, sorn, ata-ama k, anai-aioba ta labak, zoriyon-opatza danak inpuruban erangozjak!</p>
<p>Aba-ama ta anai-aiobak besaita estute narrik, igaruntz-eginak dozjak mate-besaitzabulak.</p>	<p>Agonez, one Balondin, osaba notan-egitera, nik, garuonak, zeregin neiket ire aintzarako.</p>
<p>Augustotxu, jata, deika dekuksanien altzuan, mate-egarijaz gomezia, jan-egingo dok mosuka, gozo-opila delakuan.</p>	<p>Ulegoi-erestima ber-estai gormutakizjak. Ala arantza-burestima zjnopaz-egungaitzjak.</p>
<p>Amak, bairiz, joi, Balondin! bere odola ezalatte, jetrok jakingo zeregin i zereuz asetako!</p>	<p>Arantzak, ta ez uzerik, zjnopaz-buru-garwien! Arantzak bairi bestirik etruak, ba, gure bidan!</p>

Imanolek bere eskuz idatzitako olerkia.

kurleak erraz somatuko du hau guztia bibliografiako izenbu-
 ruak ikusita besterik gabe.

Hitz lauz ere antzeko gaiak darabiltza, baina hemen kazetari-
 lanak hartzen du lehen tokia. Zornotzan ateratzen zen Jaungoi-

ko-Zalen "Errietako izparrak" eta beste atal batzuk betetzen zituen; *Jaungoiko-Zalek* haurrentzat herrietan antolatutako ohi zituen sariak eta jaietan ere Imanol Enbeita han izan ohi zen bere kazetari-lanean. Argitalpen honetan egindako lana oparoa izan arren, nahiko ezezaguna eta ilunpean gelditua izan dela dio Lino Akesolok. Euzkerean egin zuena, berriz, ezagunagoa izan zela diosku, baina ez zor zitzaion adina eskertua. Dena dela, Euzkadin erakutsi zuen Imanol Enbeitak bere abertzale, euskaltzale, olerkari eta kazetari finaren maila bikaina. Lino Akesolok harriturik eta miretsirik idazten zuen: "Ez da gero neke txikia eta egiteko makala be, egunero, egunkariko orri bat osoa bete beharra. [...] Euskal gazetalaritzan inñori omenik zor bajako, bat Imanol au dala nik uste. Gaurko gure gazetariak, ainbeste diru-laguntzaz eta taldean eta alkar-lanean ekinik be, ez dira askotan gauza izan egunero euskal-atal ganorazko bat betetako. Ibon, bere lan-gelan bakarrik, bera zan naiko askoren lana egiteko". Beste ataltxo batean hauxe dio: "Guri, urte arein inguruan eguneroko orri albistarietara begiak zabaldu genduezanoi, *Euzkadi* egunkariak ekarren *Euskal-atala* irakurriaz, Urribitarte tar Ibon izena oso etxeko eta begiko egin jakun. Lenengo orrialdean etorren *Egunerokua*-k eta azkenengo orrialdeko *Gaiak* izenpeko lanak munduan zear eta Euskalerrian jatzoten zanaren ia mami guztia eta ikuspegitxo emoten euskun". Badakigu orduko ikastoletan ere haren prosazko testuak erabili ohi zirela, eredutzat jarririk.

Beste aldetik, ageri-agerian dago zeintzuk ziren haren joerak, nahiak eta bizi zuen giroa. Bete-bete orduko abertzale eta erlijio giroan murgildurik dugu. Hark gainezka zuen bihotza herri-maitasunez, euskaltzaletasunez eta hori gertatu zitzaion eragile gartsu leporatu zituen lan nekagarriak, iraupen luzeak eta egunerokoak burutzeko... gerrate ankerrak guztia erraustu zuen arte.

Idazkera argia zuen. Esaldiak egoki tolestean, haiei gurrupila ematen zekien, herri-esapidez ongi hornituz eta gozatuz. Bai olerki eta bertsoz, bai hitz lauz joskera onaren eta ongi esatearen maisu ageri zaigu. Kazetari-lanak eta bertsolari izateak era-

gingo zioten, beharbada, gauzak labur eta argi esatera. Izan ere, kazetariak ez du hizkuntzaren apainduriatzko tolesturetan galdu behar, gauzak hitz gutxitan, erraz eta garbi azaldu baizik. Bertsolariak ere, hitzetik hortzera ari denak batez ere, entzulcak mezua bat-batean jasotzea nahi badu, metafora ilun eta sakone-tan sartzerik ez du izango noski... Horrela ageri zaigu Imanol Enbeita ere. Bere garaiko euskara darabil; bizkaiera; lexikoa eta ortografia sabindiarra; baina hori gorabehera, edonork ulertze-ko eran idazten du, euskaldunzahar peto-petoa, euskaraz pentsatzen duena eta euskaraz bizi dena delako.

Umorez nahiz serio, zirika nahiz sentimenduz, gozo nahiz oz-pin-tantta batzuekin... unean-unean behar den erregistroaz ba-liatzen daki. Baina gai garrantzean ere garrazkeriarik gabe, bere nortasunari, bere aburuari eutsiz, baina gizatasunez idatziko du.

Bertso eta olerkiei dagokienez, gure ustez, bertsoak gaina hartzen dio olerki edo poesiarri. Batzuetan zail da bataren eta bestearen mugak argi eta garbi zahaztea. Garai honetako gehienak herri-bertsoen moldeetan ari dira. Imanolek berak hortxe egin zuela dirudi bere lekutxo eta eroso zegoela... Gai-nera, goian adierazi dugunez, eguneroko bizitzaren harian, pertsona aipagarriak goraiatzeko, senitarteko nahiz herriko une gogoangarriak kantatzeko, eskuarki, bertsoak idatzi ohi zi-ren eta ez hainbeste olerkiak. Imanolek ere egin ohi zituen noizbehinka hegazkadatxoak lirikaren goragoko gunee-tara. Baina bere-bere bertsoa zen, eta olerkiaren goi-bidaietan saiotxoak egin ondoren, berera itzuli ohi zen, egunerokora, mezu soilagoen bidera.

Aita Santi Onaindiak, bertsoaren eta olerkiaren mugan ari zi-renentzat izen bat behar eta *oleskari* izena asmatu zuen. Hiru sail bereizten zituen hark hurrenez hurren eta mailaz maila: bertsolariak, oleskariak eta olerkariak. Kepa Enbeita "Urretxin-dorra"ri *oleskaria* esaten zion eta Zarauzko "Kuliska Sorta"n ar-gitaraturiko liburuaren izenburuan ere hauxe dio: "Enbeita Oleskaria". Nik horren zergatiaz galde eginik, honela erantzun zidan:

"**Oles egitea** deitzea da, atean kask-kask jotea. Bertsolari batzuk be oles egiten dakie. Nori egiten deutse oles? Entzuteko prest egon leitekezan euskaldun guztiei, baina batez be erriari. Erriari kask-kask eginik, aren barrua, bai bihotza eta bai aren izate guztia dardaraz jartzen dauana, ori da **oleskaria** niretzat. Bertsolaria zan bera izan, baina gerra aurretik, emen Bizkaian batez be, mitinen bat zanean, batzarren bat zanean, Enbeitari deitzen eutsien; eta a ez zan ibilten au eta bestea esaten; erriagana joian zuzen; irudi polit batzuk erabilten zituan andik eta emendik artuta eta erriaren biotza dardaraka ipintera joian. Abertzaletasuna zabaltzen ibili oi zan. Beste batzuk be ibiliko ziran, baina Enbeitari zan beti deitua toki guztietara. Orregaitik ipini neban nik, liburu horretan, **oleskari** eta gaur be orretara dabiltzanei **oleskari** deitzen deutset. Enbeitaren bertsoak goiko argiaz eta biotzeko suaz eginak dira", esan zidan geroxeago. Hark "Urretxindorra" jartzen zuen tokian Imanol ere berdin-berdin jar daitekeela uste dugu.

Adibidetzat ekar ditzagun hona bizpahiru bertso edo olerki:

I...XI...LLIK... SABIN LO DAGO-TA

I...xi... lik danok, zaratarik ez:
 Ez geyago itzik: ixildu arin,
 Lo dagoanak itzartukeran
 Artu ez dayen biyotzian min!...
 Illotzik daula diñoen arren
 Bizirik dau ba niretzat Sabin:
 ¿Illotzik daula?... ¿Lo ez dago ba?...
 Bai, lotan dago!... Txis...tik, ez egin

Txistik be ein barik ixil-ixilik,
 Ondo gogaldu, ziñez oartu,
 Beñola baten il zalakoan...
 Il-zerraldoan nor eben sartu.
 Ainbat nekaldi jasan ondoren

Il-antza baño ez eban artu:
Ordutik ona lo dago Sabin...
¡Gentzazko lotan!... Ez iratzartu.

Bihotz-zirraraz ondutako olerkia duzu. Gaia ere ez da arrunta. Sabin Arana-Goiriren heriotzak hunkiturik utzi ditu abertza-leak eta barruko gar biziz, heriotza lo sakon bihurtu nahi lukeen irrikaz. Ebanjelioko Lazaroren loaren aipamena dago ezkutuan, kristau-itxaropenez jantzia. Hau olerkia da; ez bertso soila. Formaz zortzikoa, hamar silabakoa, letrero bikoitietan errima duela. Baliabideak: galdera eta harridura-markak, etendura puntuak eta etenuneak bihotz-zirrararen adierazgarri.

OLERKARIJA BE II!

Erijotzeak zintzo diñardu
Ilkor-azija ereiten,
Bein ilteagaz aiztuta edo
Inor geratu ezteiten.

Erijotzea jaun arteza da
Zuzentzak berak egifia;
Lagi bat dauko guztioentzat:
¡Danontzat neurri bardiña!

Eta orduba eltzen danian
Aurretik ezer esange
¡Lagi bategaz epaituko dau
Bakaldun jauna ba-da be!

Erijotzeak lorik ez dagi,
Egunez, ta ez gabean:
Etorri, barriz, gau-lapurra lez,
¡Gitxien uste danean!...

Oinguan barriz jo erijotza!
Olerkaria, il dozu:
¡Orok begiko geban "Zubigar"!
¡Danon kutun zan Garbizu!!

Forma aldetik koplak handia duzu. Laukoak dira, hamar eta zortzi silabakoak, bigarren eta laugarren lerroetan errima dutela. Ongi egindako koplak. Gogoeta sakonak datoz, baina nahiko ohikoak...

NEURE SEMEBITXI

Praka zar laburtxua
zilo betekoa
arkondaria bere
onen antzekoa;
mendijetan onarren
edurra naikoa,
auxe da Imanoltxuk
daukan soñekoa.

Ikastolarantza be
zazpi urte gabe,
albotik kentziarren
biralduen dabe.
¡Baita laistertxu ein be
idaztijen jabe,
jakin ezarren ondo
ezautzen A ta B!

Nik etxuat ikusi
zazpi urte bako
mutil koskorrik iñun
zolibaurik asko.
¡Azeri batek baño

trampa geyau dauko!...
¡Au bai Txindor-kumia
kayolatarako!

Zortziko txikian egindako bertso politikak. Mutikoaren kanpo-ko eta barruko deskripzioa egiten digu hemen, maitasunez eta aldi berean zirika... Lehenengo bertsoa, pixka bat aldaturik, euskal kantutegi zaharretan agertu izan da; Jon Enbeita bertsolariak ere, gitarraz kantari aritzen zeneko garaietan, kantatzen zuen.

Orain beste pasartetxo bat agertuko dugu hitz lauz egina. Gai garratz samarra erabili arren, garrazkerietara ez zuela jotzen esan dugu lehenxeago. Ondorengo hauxe duzu honen adibide argia:

"Onalde" sinatzen duen gipuzkoar batek honako hau idazten dio:

"Badirudi lenagotik zerbaít minberatuak zeuden biotzetan erori dala nere gogorik onenaz egindako galderatxo ori. [...] Jaungoikoagatik ez artu txarrera".

Honela erantzuten dio Imanol Enbeitak:

"Lerro orretan irakurten dogunez, Bilbao'ko Euzko Gastedia'k argitaldu daun egutegija-bide egin ixan eban itauntxuba, usterik onenaz egiñikua ixan zan. Geuk be alan uste dogu: bizkaitarren bijotz mindubetan zauri barriak ezarteko asmo ez eballa egingo.

Baña "Onalde" zintzuak berak autortzen daben lez, on ustez egindako itaune a, lendik minberatubak ziran bijotzetara jausi ixan da. Eta bijotz mindubak, uste onez egiña dala be, lengo zaurijaren ganera beste barri bat ba-yatorko, oyu egiten dau. Ta zauritzailliaren aurka jagi.

Beraz, "Onalde" maite, iñori "pupurik" egiterik gura ezpadozu, usterik onenaz be, ez eztenaz zirikatu, eztenkadea artzen daun aragi bixijak, zauri-miña bakarrik artu oi-clau, ba, ta ez uste onaren gozua.

Gu, bizkaitarrok, "Onalde" maite, bizkaiera-bide, eztenkadarik asko artubak gara. Eta ori dala-ta, bein baño sarrijago esanazotxo ixan deuskuzube: "Bizkaya´ren bigarren Gaztela, Gipuzkoa-edo da, aurki".

Gaztelarrak, euzkeraz entzuten deuskubenetan, "no les entendemos" erantzuten deuskube. Eta gipuzkoar askok be, bizkayeraz entzuten deuskubenean, "ez dizugue entenitzen" esaten deuskube, ta eurena baño gitxiagotzat, gauza ezagotzat etsi. Eta onelako gauzak, "Onalde" maite, usterik onenaz egiñak ixanda be, mingarriak ixaten dira.

Guk, bizkaitarrok, beñepein, gipuzkoar geure anaya maitien gipuzkereatzaz, mingarri dan ezer eztozu egiten. Bizkaya´n gipuzkereak atiak abalik ixaten dauz. Emen, giputz-izkelgijari abegi-ona egiten yako; Giputz-irakurgayak arretaz irakurten dira, ta ulertuten alegindu.

Ori ta guzti be, baña, bizkayerea etxeuago yaku, ta obeto ulertu be egiten dogu. Baña au ezta eragozpena Gipuzkoa´ko anaya kutunari etxeke sendiko aulkija lagateko. Beraz, bizkayereak be, gipuzkera anaya maitiaren etxian, aulki txikitxu bat gura leuke, alkarren arteko artu-emonetan etxekotasun geyago ixan dagiguntzat.

Auxe da, guk euzko-anai guztijok egin biar doguna, "Onalde": bata-bestien etxietako atiak zabaldu, ta sendi batekotuta geratu.

Eta amaitzeko , eskerrikasko, "Onalde" agertu ixan deuskuzun uste onagaitik".

"Onalde" delako horrek, hemen azaldu dituen arrazoi sako-nen eta agertu duen adeitasunaren aurrean, zer egingo? Bertso-laria izanez gero, nola edo hala erantzun egin behar; bestela isilik egon eta kito!

Honenbestez amaitutzat ematen dugu haren estilo edo idazkeraz egin dugun ibilera laburtxo...

III. Bertsoen Bibliografia osoa.

Hemen alfabetoaren arabera aurkezten da Imanolen bertso edo olerkien bibliografia:

ENBEITA RENTERIA, Imanol (Garbi-nai, Ibon, Uribitarte'tar Ibon, Imanol, Beresiko Txepetxa), *Aberrri gaxoa*, Laurak bat (1922,Ir.) 217. / Euzkerea 2 (1930,21.zk.) 455.

— *"Agarel" il da*, Euzkerea 7 (1935,12.zk.) 765-766.

— *Agur euzkeleerrija* [Has.], Bizkaitarra-SN (1931,43.zk.) 4.

— *Agur neure Euzkadi maittari!*, Aberri 3 (1908,98.zk.) 4.

— *Agur Sabin, ene illoba kutun orri!*, Euzkadi 16 (1928,4743.zk.) 5.

— *Agur samur bat nere guraso eta Aberri maittari!*, Baskonia 15 (1908,518.zk.) 223.

— *Agura zarra ta gazte zoruak*, Euzkerea 6 (1934,4.zk.) 230-231.

— *Aita Basabe il da*, Euzkadi 16 (1928,4762.zk.) 4. / Jaungoiko 17 (1928,317.zk.) 21.

— *Aita Iruarrizaga*, Euzkadi 16 (1928,4814.zk.) 5.

— *Aita Lundurraga nor dan?*, Euzkadi 16 (1928,4814.zk.) 5.

— *Aitabitxi'gaz ez aitzu*, Euzkadi 17 (1929,5265.zk.) 1. / Lecaroz (1929,26.zk.) 78.

— *Aizkibel'dar Bingen'i*, Euzkadi 8 (1920,2531.zk.) 1.

— *Albizuri eta Ozamiz'tar Serapin (jauparija)*, Jaungoiko 16 (1927,308.zk.) 192.

— *Ameriketa'ko Euzkeldunak eta gu* [Pr.-ber.], Euzkerea () 409.

— *Ames bat*, Euzkadi 17 (1929,5054.zk.) 5.

— *Ames gozo bat*, Bizkaitarra-BBB 3 (1911,107.zk.) 3.

— *Amets bat*, Euzkerea 3 (1931,27.zk.) 585.

— *Aolako Endoreak* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4892.zk.) 3. / Jaungoiko 17 (1928,328.zk.) 162.

— *Ara nun seintxu batek* [Has.], Jaungoiko 17 (1928,332.zk.) 210.

— *Arana'tar Sabin'en oroimengarria!*, Aberri 1 (1906,30.zk.) 3.

— *Arana-Goiri'tar Sabin'en gomutan!*, Euzkerea 3 (1931,35.zk.) 752-753.

— *Arana-Goiri'tar Sabin'eri*, Euzkadi 10 (1922,3145.zk.) 1.

— *Arana-Goiri'tar Sabin'en gomutaz*, Euzko 1 (1932,18.zk.) 7.

- *Arima bat baño ez dot*, Euzkadi 17 (1929,5245.zk.) 1.
- *Arrospide eta Basabe'tar Jon-Mari* [Pr.-ber.], Euzkadi 17 (1929,5130.zk.) 5.
- *Artzaina dator artalderantza* [Has.], Jaungoiko 17 (1928,329.zk.) 171.
- *Artzaña naz*, Euzkadi 19 (1931,5856.zk.) 6.
- *Azi txarra zabaldua dago*, Patria 3 (1905,119.zk.) 3.
- *"Aske Libano'ko"-ri* [Pr.-ber.], Euzkadi 8 (1920,2615.zk.) 6.
- *Asuero osalaria*, Jaungoiko 18 (1929,35[5].zk.) 261.
- *Asuero!*, Euzkadi 17 (1929,5171.zk.) 5.
- *"Atarrene" il da*, Euzko Enda 1 (1939,11.zk.) 6.
- *Attabitxigaz, ez aitzu*, Euzkerea 3 (1931,26.zk.) 563.
- *Atzo Larrabetzun*, Euzkadi 8 (1920,2735.zk.) 1.
- *"Aultio" ala beste bat?*, Euzkadi 16 (1928,5006.zk.) 5.
- *Auis eguna*, Euzkerea 3 (1931,26.zk.) 563.
- *Auis-eguna*, Euzkadi 17 (1929,5083.zk.) 4.
- *Azalpenak?*, Euzkadi 16 (1928,4997.zk.) 5.
- *Azillen* [Has.], Euskaria 3 (1908,123.zk.) 1.
- *Ba'yoakuz! Errotaetxe' Erraimun be il...!*, Euzkadi 17 (1929,5217.zk.) 3.
- *Bakalduna eta errukiaren Ama*, Jaungoiko 17 (1928,337.zk.) 264.
- *Bakaldunen egunan* [Has.], Euzkadi 21 (1933,6270.zk.) 1.
- *Bakotxak beria onentzat*, Euzkadi 20 (1932,6173.zk.) 1.
- *Baltz ez zuriak*, Patria 3 (1905,112.zk.) 3.
- *Barrena Polikarpa here sendi guztiagaz emen da* [Pr.-ber.], Euzkadi 17 (1929,5244.zk.) 5.
- *Basatikeri lotsagarrijok* [Has.], Euzkadi 20 (1932,6033.zk.) 4.
- *Baserrijen*, Euzkadi 2 (1914,537.zk.) 3.
- *Batasuna!*, Euzkadi 18 (1930,5391.zk.) 5.
- *Bayoakuz, bayoakuz! Elortza' Inaki, be bai*, Euzkadi 17 (1929,5249.zk.) 3.
- *Bayoakuz, bayoakuz!*, Jaungoiko 18 (1929,357.zk.) 294.
- *Begi-begiko yakuz* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4892.zk.) 3. / Jaungoiko 17 (1928,328.zk.) 162.
- *Bei zaarraren kontuen amaia*, Ibaizabal 2 (1903,99.zk.) 4.
- *Bein baño ez naz ilgo*, Euzkadi 17 (1929,5244.zk.) 1.

- *Belgundeko irugarren eguna* [Pr.-ber.], Euzkadi 16 (1928,4808.zk.) 5.
- *Belu-Mendi'ri*, Euzkadi 16 (1928,4814.zk.) 5.
- *Bermeotarrak Nardiz "don Benantzio"-ri*, Euzkadi 8 (1920,2792.zk.) 6.
- *Bidaztijak gara-ta*, Euzkerea 3 (1931,31.zk.) 669.
- *Bideztiyak gara ta... Beti eskuitarako bidetik!*, Jaungoiko 17 (1928,319.zk.) 42.
- *Bigarren Arana-Goiti?*, Euskaria 4 (1909,168.zk.) 1.
- *"Biotzkadak"*, Euzkadi 17 (1929,5237.zk.) 4.
- *Bixi dedila euzkera!*, Patria 3 (1905,112.zk.) 3. / Patria 3 (1905,120.zk.) 3.
- *Bizkaitarren poza*, Ibaizabal 2 (1903,93.zk.) 2-3.
- *Bizkargi'n*, Euzkadi 8 (1920,2608.zk.) 1.
- *Bularrez bular!, eta aurrez-aurre!...*, Euzkerea 3 (1931,32.zk.) 690-691.
- *Buzko-errikatubaren abestiya*, Euzko Enda 1 (1939,8.zk.) 9.
- *Dama gazte bati*, Ibaizabal 2 (1903,55.zk.) 4.
- *Deun Joseba eguna* [Pr.-ber.], Euzkadi 16 (1928,4803.zk.) 5.
- *Deunoro-jaya*, Euzko Enda 1 (1939,12.zk.) 4.
- *Donok eder-ederra dago*, Euzkadi 17 (1929,5248.zk.) 1.
- *Donostia*, Argia 6 (1926,265.zk.) 1.
- *Eba sugeak lez, gu ludijak atzipetu*, Jaungoiko 17 (1928, 332.zk.) 210.
- *Edurra Bilbao'n*, Euzkerea 2 (1930,14[bisl.zk.] 307.
- *Edurra*, Euzkerea 4 (1932,2.zk.) 30.
- *Eletzalde'tar Koldobika'ri*, Euzkadi 11 (1923,3340.zk.) 6.
- *Enrike Elizabearen seme, Jose Mariari*, Ibaizabal 2 (1903,57.zk.) 2.
- *Entzun, irakurle*, Euzkadi 16 (1928,5036.zk.) 1.
- *Erantzuera!*, Patria 3 (1905, 118.zk.) 2.
- *Erbial Zer egiten dok beti* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5081.zk.) 5.
- *Erderaz jakitunak* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5293.zk.) 5.
- *Eriotzea*, Jaungoiko 17 (1928,324.zk.) 112. / Euzkadi 16 (1928,4844.zk.) 5.
- *"Erlotcue" gaxua!*, Euzkadi 22 (1934,6782.zk.) 12.
- *Errekara begira*, Euzkadi 16 (1928,4909.zk.) 4. / Euzkerea 3 (1931,31.zk.) 669. / Jaungoiko 17 (1928,329.zk.) 170.

- *Jaungoiko bat baño ez da*, Euzkadi 17 (1929,5246.zk.) 1.
- *Jaungoiko-Zale dabil* [Has.], Jaungoiko 18 (1929,356.zk.) 279.
- "*Jaungoiko-zale*"-n idaztiak, Jaungoikoak 18 (1929,346.zk.) 112bis.
- *Jaungoikua toki guztietan*, Euzkadi 17 (1929,5247.zk.) 1.
- *Jaungoikuak guztia dakus*, Euzkadi 17 (1929,5250.zk.) 1.
- *Jayo dan Miren Edurne* [Has.], Euzkadi 8 (1920,2579.zk.) 1.
- *Josu'ren Ama, neure Ama be bai-da*, Euzkadi 17 (1929,5250.zk.) 1.
- *Josukristoren gurutza*, Euzkadi 16 (1928,4820.zk.) 5.
- (*Kepa Enbeltari*), Euzkadi 10 (1922,3091.zk.) 1.
- *Kepa'ri*, Laurak bat (1922,Az.-Ab.) 253.
- "*Kirikiño*" il da, Euzkadi 17 (1929,5075.zk.) 5.
- *Kirikiño sasiperatuta gero*, Euzkadi 16 (1928,4947.zk.) 5.
- *Kirikiño*, Jaungoiko 18 (1929,349.zk.) 158.
- *Kirikiño'ren agurra*, Euzkadi 16 (1928,4945.zk.) 1.
- *Kistar ikasbidea* [Has.], Jaungoikoa 17 (1928,329.zk.) 171.
- *Larra'tik Gernika'ra* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4892.zk.) 3. / Jaungoiko 17 (1928,328.zk.) 162.
- *Larrialdietan be* [Has.], Jaungoiko 17 (1928,329.zk.) 171.
- *Lekaipe, ama, lekaipe!*, Euzkadi 16 (1928,4893.zk.) 5. / Jaungoiko 17 (1928,328.zk.) 160.
- *Lengo batian, illuntzia zan* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5117.zk.) 4.
- *Lore usaintsu biri*, Ibaizabal 2 (1903,83.zk.) 2. / Baskonia 14 (1907,501.zk.) 515.
- *Lugiña naz*, Euzkerea 3 (1931,36.zk.) 775.
- *Lurgiña naz, ta, lurrian nabil* [Has.], Eusko Deya-P 4 (1939,158.zk.) 4. (Zat.).
- *Lurrian tatarrezka* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5305.zk.) 5.
- *Maitasun utsa. (Oteunari abestia)*, Euzkadi 16 (1928,4867.zk.) 5.
- *Mamin utsa dan zure "Mattale"* [Has.], Euzkerea 2 (1930,18.zk.) 374.
- *Mattale gabia*, Euzkerea 7 (1935,9.zk.) 538-539.
- *Mattasun utsa. (Oteunari abestiya)*, Euzkerea 3 (1931,30.zk.) 646.
- *Mayatzeko illian!*, Baserritarra 4 (1907,69.zk.) 3.
- *Mejikon bixi diran abertzale zintzoari!*, Baskonia 15 (1908,525.zk.) 334.
- *Mendiko gentzea. Artzaña naz*, Euzkerea 3 (1931,34.zk.) 731.

- *Gentza-zale, Egi-aldezle*, Euzko Enda 1 (1939,1.zk.) 9.
- *Gernika'ko Udala*, Euzkadi 8 (1920,2589.zk.) 1.
- *Gernika'tik*, Euzkadi 17 (1929,5049.zk.) 6.
- *Gernika. Eup mutilak!*, Euzkadi 8 (1920,2601.zk.) 6.
- *Gernika. Eup!*, Euzkadi 8 (1920,2586.zk.) 6.
- *Gerrillako temosoari*, Patria 3 (1905,116.zk.) 2.
- *Gipuzkoar ingi barriari!*, Gipuzkoarra 1 (1907,5.zk.) 2.
- *Gokaxo'en egunian*, Jaungoiko 16 (1927,312.zk.) 241.
- *Gora Euzkadi!*, Baserritarra 4 (1907,81.zk.) 4.
- *Goraldu daigun!*, Bizkaitarra-SN (1930,2.zk.) 5.
- *Gork'ko ondorean eriotzaren gomutan*, Euzkadi 8 (1920,2776.zk.) 4.
- *Gotzone, gaur daukozu urte bat*, Euzkerea 2 (1930,19.zk.) 404-405.
- *Goyan begoz!*, Euzko Enda 2 (1940,13.zk.) 15.
- *Guazen Belen'era*, Bizkaitarra-SN (1930,13.zk.) 1.
- *Gure Ama onari!*, Patria 3 (1905, 121.zk.) 3.
- *Gure euskerearen ganean*, Euskalduna 9 (1904,326.zk.) 6-7.
- *I... xi... llik... Sabin lo*, Euzkadi 17 (1929,5314.zk.) 1.
- *Idazki bat neure aberri maitiari*, Gipuzkoarra 5 (1911,201.zk.) 4.
- *Idazki bat*, Baskonia 18 (1911,640.zk.) 475.
- ik. Areitio - Olalde - Enbeita, M.
- ik. Enbeita Renteria, Kepa - Enbeita Imanol.
- *Ikasle baten estuasunak*, ZArgia (1977,729.zk.) 40.
- *Ikaslia ikastolarantz*, Euzkerea 2 (1930, 17.zk.) 355.
- *Ilhuntzar mendijaren gomutan*, Euzkadi 8 (1920,2638.zk.) 6.
- *Ipuñak diriala* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4921.zk.) 5.
- *Irakasle Sabiñ-i, beren bostgarren ill urtian*, Euskaria 3 (1908,121.zk.) 1.
- *Iruntarrak eta euren txauburu-gotzaña*, Jaungoiko 18 (1929,342.zk.) 48.
- *Itzaldi maratzak* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5047.zk.) 5.
- *"Izar Argiya" izentzat dozun* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4858.zk.) 5.
/ Euzkadi 17 (1929,5254.zk.) 1.
- *Jabola bat biarrekoa dot*, Euzkadi 17 (1929,5249.zk.) 1.
- *Jaunartze egunian. Ene seme Joseba Imanol'eri lenengoz Jaun ar-tu dabeneko gomutakitzat*, Euzkadi 17 (1929,5111.zk.) 5.

- *Jaungoiko bat baño ez da*, Euzkadi 17 (1929,5246.zk.) 1.
- *Jaungoiko-Zale dabil* [Has.], Jaungoiko 18 (1929,356.zk.) 279.
- *"Jaungoiko-zale"-n idaztiak*, Jaungoikoak 18 (1929,346.zk.) 112bis.
- *Jaungoikua toki guztietan*, Euzkadi 17 (1929,5247.zk.) 1.
- *Jaungoikuak guztia dakus*, Euzkadi 17 (1929,5250.zk.) 1.
- *Jayo dan Miren Edurne* [Has.], Euzkadi 8 (1920,2579.zk.) 1.
- *Josu'ren Ama, neure Ama be bai-da*, Euzkadi 17 (1929,5250.zk.) 1.
- *Josukristoren gurutza*, Euzkadi 16 (1928,4820.zk.) 5.
- *(Kepa Enberrari)*, Euzkadi 10 (1922,3091.zk.) 1.
- *Kepa'ri*, Laurak bat (1922,Az.-Ab.) 253.
- *"Kirikiño" il da*, Euzkadi 17 (1929,5075.zk.) 5.
- *Kirikiño sasiperatuta gero*, Euzkadi 16 (1928,4947.zk.) 5.
- *Kirikiño*, Jaungoiko 18 (1929,349.zk.) 158.
- *Kirikiño'ren agurra*, Euzkadi 16 (1928,4945.zk.) 1.
- *Kistar ikasbidea* [Has.], Jaungoikoa 17 (1928,329.zk.) 171.
- *Larra'tik Gernika'ra* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4892.zk.) 3. / Jaungoiko 17 (1928,328.zk.) 162.
- *Larrialdietan be* [Has.], Jaungoiko 17 (1928,329.zk.) 171.
- *Lekaiñe, ama, lekaiñe!*, Euzkadi 16 (1928,4893.zk.) 5. / Jaungoiko 17 (1928,328.zk.) 160.
- *Lengo batian, illuntzia zan* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5117.zk.) 4.
- *Lore usatnusu biri*, Ibaizabal 2 (1903,83.zk.) 2. / Baskonia 14 (1907,501.zk.) 515.
- *Lugiña naz*, Euzkerea 3 (1931,36.zk.) 775.
- *Lurgiña naz, ta, lurrian nabil* [Has.], Eusko Deya-P 4 (1939,158.zk.) 4. (Zat.).
- *Lurrian tatarrezka* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5305.zk.) 5.
- *Maitasun utsa. (Oteunari abestia)*, Euzkadi 16 (1928,4867.zk.) 5.
- *Mamin uisa dan zure "Mattale"* [Has.], Euzkerea 2 (1930,18.zk.) 374.
- *Mattale gabia*, Euzkerea 7 (1935,9.zk.) 538-539.
- *Mattasun utsa. (Oteunari abestia)*, Euzkerea 3 (1931,30.zk.) 646.
- *Mayatzeko illian!*, Baserritarra 4 (1907,69.zk.) 3.
- *Mejikon bixi diran abertzale zintzoari!*, Baskonia 15 (1908,525.zk.) 334.
- *Mendiko gentzea. Artzaña naz*, Euzkerea 3 (1931,34.zk.) 731.

- *Miren Sorkunde Garbia'ri*, Euzkadi 16 (1928,5024.zk.) 5. / Jaungoiko 18 (1929,362.zk.) 363.
- *Muxika* [Pr.-ber.], Euzkadi 7 (1919) (1919-X-3).
- *Muxika'ko Txorija'ri*, Euzkadi 3 (1915,1001.zk.) 1. / Euzkadi 3 (1915,941.zk.) 1. / Euzkerea 3 (1931,28.zk.) 606.
- *Muxika'ko Txorijari, berrerantzuna*, Euzkerea 3 (1931,29.zk.) 626.
- *Muxika udabarrian*, Euzkadi 17 (1929,5119.zk.) 4.
- *Negua*, Euzkadi 17 (1929,5048.zk.) 5.
- *Negute gogorra*, Jaungoiko 18 (1929,361.zk.) 340.
- *Nere adiskide maite Antoniliña Murgoitio, euskaldun dama gaztiari!*, Baserritarra 4 (1907,72.zk.) 2.
- *Nere amactxori*, Baskonia 18 (1910,614.zk.) 27.
- *Nere baserrijen*, Baskonia 21 (1914,749.zk.) 458.
- *Nere gogo-baratza*, Jaungoiko 16 (1927,307.zk.) 182.
- *Neure anaje maite Pedro Enbeitari*, Ibaizabal 2 (1903,63.zk.) 4.
- *Neure guraria ta besteren esana*, Euzkadi 17 (1929,5252.zk.) 1.
- *Neure maitia'ri*, Euzkadi 8 (1920,2743.zk.) 4.
- *Neure maiteari*, Ibaizabal 2 (1903,72.zk.) 2. / Euskaria 3 (1909,153.zk.) 1.
- *Neure semebitsi*, Euzkadi 7 (1919,2472.zk.) 6.
- *Nok zirikatu dagoanean* [Has.], Jaungoiko 17 (1928,329.zk.) 171.
- *O! Aberri gaixua!*, Euskaria 3 (1909,151.zk.) 1.
- *Olerkarija be il!*, Euzkerea 2 (1930,16.zk.) 343.
- *Olerkitxu bi bakar-bakarrik* [Has.], Euzkadi 8 (1920,2633.zk.) 6.
- *Ondoet ez osterat?* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5159.zk.) 5.
- *Ondo etorria!*, Euzkadi 16 (1928,5041.zk.) 4.
- *Or emen zabal aldratxuetan* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4827.zk.) 5.
- *Orreik txirringuts-lari arinok!* [Pr.-ber.], Euzkadi 16 (1928,4803.zk.) 5.
- *Otsein zoliya gero...!*, Euzkadi 15 (1927,4718.zk.) 4.
- *Pelota yoko gogoangarrija* [Pr.-ber.], Jaungoiko 17 (1928,318.zk.) 35-36.
- *Sabiñ onaren baratza lorez betiari*, Patria 3 (1905, 110.zk.) 2.
- *Semie erdi galduta* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4918.zk.) 4.
- *Surren puntako "Lunarra"*, Euzkadi 8 (1920,2568.zk.) 1.
- *Txadin*, Euzkadi 8 (1920,2581.zk.) 6.

- *Txindorra'ren utsunia!*, Euzkadi 8 (1920,2582.zk.) 1.
- *Udabarraia, berbizkundia*, Euzkadi 17 (1929,5119.zk.) 4.
- *Udabarrija*, Euzkerea 1 (1929,4.zk.) 73.
- *Udabarraia*, Euzkadi 15 (1927,4511.zk.) 4.
- *Udabarraia*, Euzkadi 16 (1928,4831.zk.) 5. / Jaungoiko 17 (1928,323.zk.) 92.
- *Udabarrija*, Euzkerea 2 (1930,16.zk.) 343.
- *Udabarrिया?*, Euzkadi 15 (1927,4491.zk.) 1.
- *Udabarriko lore usaintsu bateri*, Baskonia 15 (1908,530.zk.) 419.
- *Ugazabaren oñari munka*, Jaungoiko 17 (1928,334.zk.) 234.
- *Umezurtza*, Euzkadi 20 (1932,6201.zk.,XI-1) 1. / Euzkadi 23 (1935,7147.zk.) 12.
- *Umezurtzak*, Euzko Enda 1 (1939,4.zk.) 12.
- *Umezurtzia. (Gokaxoen egunian)*, Euzkadi 16 (1928,4995.zk.) 7.
- *Urak ekarri ta urak eruan*, Euzkerea 4 (1932,75.zk.) 75.
- *Urkiola-ganeko Andoni Deuna*, Euzkerea 3 (1931,30.zk.) 647.
- *Urkiolako ganeko Andoni Deuna*, Euzkadi 17 (1929,5182.zk.) 5.
- *Urtiak ditun igande ta abar* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4967.zk.) 4.
- *Urtoro soil-soil laño-janzkijan* [Has.], Euzkadi 23 (1935,7150.zk.) 24.
- *Zapal-zapal egiten* [Has.], Euzkadi 17 (1929,5199.zk.) 3.
- *Zeltzak (Tentaziñoak)*, Baskonia 37 (1930,1309.zk.) 201.
- *Zeltzak (Tentaziñoak). Garbinetxu'ren larrilasunak*, Euzkadi 17 (1929,5291.zk.) 1.
- *Zer da gaur?*, Aberri 2 (1907,83.zk.) 2.
- *Zer egun zoragarria* [Has.], Lugintza (1973,124.zk.) 17.
- *Zezilia deuna ta Gernika*, Euzkadi 16 (1928,5012.zk.) 5.
- *Ziri-olerkiya*, Euzkadi 17 (1929,5297.zk.) 1.
- *Zoriontsuago nor?*, Euzkadi 16 (1928,5037.zk.) 6. / Euzkerea 3 (1931,27.zk.) 584-585.
- *Zugatz deunaren orri tartian* [Has.], Euzkadi 8 (1920,2764.zk.) 6.
- *Zuk mutil, ortik ziar* [Has.], Euzkadi 16 (1928,4921.zk.) 5.
- *Zumalakarregi*, Euzkadi 24 (1936,7432.zk.) 8.

IV. Prosazko lanen bibliografia

Imanol Enbeitaren literatur emaitza hobeki ezagutu ahal izateko, haren idazlanen bibliografia gehitu nahi dugu hemen. Estilo bibliografikoa aldatu egingo dugu: lehenengo urteka eman-go ditugu, eta gero ez ditugu zehatz-mehatz agertuko lehen bezala, egunkari edo aldizkariaren izena eman eta noiz argitaratua den adierazi baizik. Eta zergatik hori? Bada, Joseba Imanol Enbeita Barrena, olerkariaren semeak, bere aitari dagozkion idazlanen fotokopia mordo bat ekarri digu, eta paper hauetan aldizkariaren izena eta data besterik ez dira agertzen.

1920

"Azke Libano'ko"ri, Euzkadi, 1920-V-1920-13.

1925

"Pedro" semerik kutunena!, Euzkadi, 1925-X-3.

Geldi ori!, Euzkadi, 1925-X-28.

1928

Gernika, Euzkadi, 1928-III-22; 1928-X-8.

"Izar Argiyya", Euzkadi, 1928-V-29. / Euzkadi 16 (1928,4858.zk.) 5.

Errietako izparrak, Jaungoiko zale, 1928-V-15; 1928-V-17; 1928-VI-18. (Pr.-Ber.)

Laida'ko larritasunak, Euzkadi, 1928-X-5. (Pr.-ber.) // Euzkadi 16 (1928,4918) 4.

Gernika'tik, Euzkadi, 1928-VIII-9. (Pr.-ber.). // Euzkadi 16 (1928,4921.zk.) 5.

Errietako izparrak, Jaungoiko zale 1928-IX-20. (Pr.-ber.). // Jaungoiko zale 17 (1928,334.zk.) 234.

Gernika'tik, Euzkadi 1928-X-5; 1928-X-8; 1928-XI-7

Errietako izparrak, Jaungoiko zale 1928-X-15. (Pr.-ber.). // Jaungoiko zale 17 (1928,328.zk.) 162.

Geldi ori!, Euzkadi, 1928-X-25. (Pr.-ber.).

1929

Zorionak, Euzkadi, 1929-I-12. (Pr.-ber.) // Euzkadi 17 (1929,5047.zk.) 5.
Eskintza bat Sakramentu Deunaren Domingo Aba'ri, Jaungoiko zale
 1929-XI-5.

Erderaz esanda txalogarri, euskeralduta irrigarri, Euzkadi, 1929-XI-
 29. (Pr.-ber.) // Euzkadi 17 (1929,5293.zk.) 5.

Josu'ren jayokundia, Euzkadi, 1929-II-10.

Sabin, Euzkerea, 1929-XII.

1930

Agate deunaren abestijak Bilbao'n, Euzkerea, 1930-II.

Amea idoro barik juan da, Euzkerea, 1930-VI-15.

Sabin'ek euzkereatzaz ezer egin ebanentz?, Euzkerea, 1930.

Gernika'tik Lekettio'ra, Euzkerea, 1930.

Euzko-Edestijaren Kinubak Mungia'ko gudaldija, Euzkerea, 1931-IV.

Ondo etorrija!, Euzkerea, 1931-VII.

1932-1935

Egunekua, Euzkerea, 1932-V-10; 1932-V-15; 1932-VI-18; 1933-V-1;
 1933-VII-11; 1933-X-21; 1933-XI-1; 1933-XII-31; 1934-I-2; 1934-I-30;
 1934-III-28; 1934-IV-8; 1934-IV-17; 1934-V-8; 1934-V-12; 1934-V-26;
 1934-VI-12; 1934-VI-24; 1934-VIII-8; 1934-VIII-12; 1934-IX-12; 1934-
 VII-14; 1934-IX-29; 1934; 1934; 1935-III-24; 1935-IV-7; 1935-IV-13;
 1935-IV-28; 1935-V; 1935-V-18; 1935-V-26; 1935-V-28; 1935-V-30; 1935-
 VI-12; 1935-VI-25; 1935-VI-29; 1935-VII-12; 1935-VII-17; 1935-XI-11.

1933

Euzko oitura-zarrak, Euzkadi, 1933-XII-23. (Pr.-ber, bereak ez).

1935

Bularretiko gexua eta Arrospide'tar Joan osatzaillia, Euzkadi, 1935-V-19.

"Umezurtzak", Euzkadi, 1935-X-4; 1935-X-5;

Kabi bako enaratxubak, Euzkadi, 1935-X-10; 1935-X-11; 1935-X-12;
 1935-X-13; 1935-X-15; 1935-X-16;

Euzkotarrak-atzerrijan, Euzkadi, 1935-XI-15.

Urtero lez, Euzkadi, 1935-XI-25. (Pr.-ber). // Euzkadi 23 (1935,7150.zk.) 3.

1935-1937

Gayak, Euzkadi, 1935-VIII-8; 1935-VIII-15; 1935-VIII-16; 1935-IX-20; 1935-X-4; 1935-VIII-8; 1935-X-7; 1935-X-8; 1935-X-10; 1935-X-11; 1935-X-12; 1935-X-16; 1935-X-19; 1935-X-20; 1935-X-22; 1935-X-24; 1935-X-26; 1935-X-31; 1935-XI-2; 1935-XI-6; 1935-XI-7; 1935-XI-8; 1935-XI-9; 1935-XI-10; 1935-XI-13; 1935-XI-16; 1935-XI-18; 1935-XI-22; 1935-XI-26; 1935-XI-27; 1935-XI-29; 1935-XI-30; 1935-XII-1; 1935-XII-3; 1935-XII-11; 1935-XII-12; 1935-XII-14; 1935-XII-18; 1935-XII-21; 1935-XII-24; 1935-XII-25; 1935-XII-26; 1936-I-2; 1936-I-4; 1936-I-5; 1936-I-8; 1936-I-11; 1936-I-12; 1936-I-14; 1936-I-15; 1936-I-16; 1936-I-19; 1936-I-20; 1936-I-21; 1936-I-25; 1936-I-29; 1936-I-31; 1936-II-4; 1936-II-6; 1936-II-7; 1936-II-11; 1936-II-15; 1936-II-18; 1936-II-22; 1936-II-26; 1936-II-29; 1936-II-29; 1936-III-3; 1936-III-12; 1936-III-14; 1936-III-15; 1936-III-19; 1936-III-21; 1936-III-28; 1936-III-29; 1936-IV-2; 1936-IV-4; 1936-IV-6; 1936-IV-15; 1936-IV-16; 1936-IV-18; 1936-IV-23; 1936-IV-28; 1936-V-9; 1936-V-10; 1936-V-13; 1936-V-17; 1936-V-23; 1936-V-24; 1936-V-26; 1936-V-29; 1936-VI-6; 1936-VI-13; 1936-VI-14; 1936-VI-15; 1936-VI-19; 1936-VI-23; 1936-VI-25; 1936-VI-26; 1936-VI-27; 1936-VII-1; 1936-VII-2; 1936-VII-4; 1936-VII-6; 1936-VII-7; 1936-VII-8; 1936-VII-9; 1936-VII-16; 1936-VII-17; 1936-VII-18; 1936-VII-21; 1936-VII-25; 1936-VII-30; 1936-VIII-1; 1936-VIII-2; 1936-VIII-7; 1936-VIII-12; 1936-VIII-16; 1936-VIII-19; 1936-VIII-21; 1936-VIII-23; 1936-VIII-26; 1936-VIII-28; 1936-VIII-30; 1936-IX-4; 1936-IX-5; 1936-IX-12; 1936-IX-15; 1936-IX-22; 1936-IX-24; 1936-X-2; 1936-X-4; 1936-X-9; 1936-X-11; 1936-X-18; 1936-X-21; 1936-X-25; 1936-X-28; 1936-XI-1; 1936-XI-4; 1936-XI-6; 1936-XI-8; 1936-XI-10; 1936-XI-17; 1936-XI-18; 1936-XI-26; 1936-XI-28; 1936-XII-3; 1936-XII-14; 1936-XII-18; 1936-XII-19; 1936-XII-22; 1936-XII-27; 1936-XII-31; 1937-II-5.

V. Argitaragabeko bertso-olerkiak

Kapitulu honetan, inoiz argirik ikusi ez duten Imanolen 12 olerki eransten ditugu; horrela, irakurleak berak ikusi ahal izango du *Karmel* aldizkariaren ale honetan bertan Imanolen bertso-idazkera, haren estiloa.

Osaba bezuza

(Balendin Enbeitia, beren loba, espetxetik Muxikara etorri zaneke Osabaren bezura (1941 gko epalla, 15 garrena. larunbata. gernikan 1941-epaila-17)

Ene Balendin maitia,
etorri az, bai, etxera,
emazia eta semia
laztanka besarkatzera.
Aita-ama ta anai arrebak
besarka estutu nairik,
iganuntz-egiñak dozak
maite-besuak zabalik.
Agustintxu, aital, deika
dakuskanian altzuan,
maite egarrijaz ganezka,
jan-egingo dok mosuka,
gozo-opilla dalakuan.
Ama'k barriz, oi, Balendin!
bere odola azalako,
etxok jakingo zer-egin
i zorunez asetako!
Emazte, seme, aita-amak,
anai-arreba eta lobak,
zorion opaka danak
ingiruan ixangozak!
Azkenez, ene Balendin,
osaba nokan ezkerro,
nik, gaixuonek, zer egin
neikek ire aintzarako?

Urregorri-ereztuna
ber-eztai gomutakitzat...?
Ala arantza-burestuna
ziñopa-buru-gaiñian!
Arantzak baño besterik
etxauk ba gure bidian!
Kristo antzo espetxian
erru-kutsu bat be barik,
etxetik at, erbestian
sendi-beroge, bakarrik!
on azan loba kutuna:
Orain ire buru-gane,
ziñopa-antzikur kutsuge
agertu dedin, leun, eder,
arantzazko burestuna
baño ederragorik, zer?
Eutso, ba, ene Balendin,
osaba-bezuzau, eutso!
atsekabe, itun, samin,
sendi-gose ta erri-min,
berein sasi muetak
atzerrijan egindako
osaba-bezua, eutso!,
eutso, bai, ene Balendin!

Burtzain-mutillaren abestia

Burtzaina naz-ta, burpidez nabil,
idi-aurretik, beti burpidez!
Ene burdi au ondo zamatur
Ametzola'ko egur ta ikatzez.
Aida txuri! Aita gorri! OO!
Ametzolako ariztiruntza
burdi-idijokaz burpide-ziar,
idi maitioi aida! eta o!
batian oyu eta bestian didar,
etxeribageko baso usaindun
burtzain-abestiz sututa gar-gar.
Ibarzela'ko etxe-aurretik
igarotian amaika bidar
agurtu ixan dot ene poza dan
zitori zuri Miren Itziar.

Aida Gorri! Aida Txuri! OO!

Ibarzela'ko ingurumari
a, etxe bira jori txukuna!
Sagastiz, soloz, baratz, esparruz,
egindakua dau bureztuna.

Solo-barrenak beratuz ipil-pil!
abeska dua latz-ur gardena
Bide kurtzian iturritxu bar
maite egarrija asetzen dauna.
Bere urbegija Miren Itziar
donoki ixarra dirudijana.

OO-Gorri!, OO-Txuri!

O, geldi Gorri! O, geldi Txuri!
Miren Itziar an urrunian!
Geldi pizkaten idi maitioi,
izar eder a, eldu artian!
Bidekurtze'ko iturritxutik
egaizka dator ni ikusitian:
Edur-margodun lurrezko ontzia
dantzari dakar buru-gainian,
ixotza baxen otza dan ura
eskiniko daust maitasunian,
bertatik zurr-zurr! edanaz
maitasun-urez ase naitian.
Burtzaina naz ta burpidez nabil...

Arrantzale-mutillaren abestia

Arrantzalea naz-ta,
beti itxasuan!
Arrain-atzian nabil
egun osuan.
Itxasua dan eder
bare daunian,
Itxas unak, gentzaz lo
dagozarian!
Axoyal zirizkeaz
batel-gainian.

egaiz lez ebiltzen naz
ur-azalian.
Baina asarraldijetan
ekaiz olakaz.
Euren-gane zibuka
ene batelaz,
aurtxua siaskan lez
igituten naz.
Arraunari eragin
sariak jaurti,

itxas-azala urratuz
arrantzan beti!
Ta bere sabeletik
berein arrainki
etxeratuten dodaz
notinen jaki.
Zidar-margodun sardin
bixigu, lebatz,
beren arrain muetaz

nua etxerantz.
Maitiaren onduan
Urtzi-eskarrak,
Agur-Miren'etako
aurkituko naz.

Arrantzalia naz-ta
beti itxasuan...

Euzko-errikatu zurtzaren abestia

1
Jayo nintzan lurretik
ta aberri'tik be,
txakurrak erbija lez
uxatu nabe.
Orain arrotzak dira
Euzkadi jabe
eta ni atzerrijan
Aberrigabe.

2
Aberija galduta,
gurazorik ez;
urdaila ikol-ikol ta
bijotza miñez.
Gaizkille antzo nabil
zigor-bildurrez,
jabe bako txakurra
ibiltan dan lez.

3
Ertzainak ha-nakuse
bakar-jaubege,
"Avec-vous lais" (laisser passer)
itantzen dauste.

Gero bekoki illunez
erruki bage,
legenardun bai-nengon
uxatzen nabe.

4
Jayo nintzan lurretik
arrotzak jaurti...
Atzerrijan umezurtz
txiro-bakarti.
Olan bixitekotan
oi, ene Urtzi!
zergaitik zugandu ez
ludi ontati?

5
Gurari txikitxu bat
daikat goguan
ene jaioterrian
azken-orduban
lurraldu nagjela
ilda beinguan
ene ama zarraren
obi-onduan.

Euzko-seme errikatuben abestija

1
Otsallak billustu
ebazan zugatzak,
jorrailak orritsu
jantzi dituz danak.

2
Euren osto-orlegi
tarte ostenduta
berein baso-txori
dabiltzaz abeska.

3
Zorunez zoruntsu
ezira aspertuten
maitasun-kabitxu
beruak egiten.

4
Maitasun-kabijak
guk be ba-genduzan,
baina gixa-deungak
galdu euskubezan.

5
Orain kabi bako
txotijen antzera,
ene, zenbat euziko
bixi ete gara...!

6
Ez poz ta ez zorun
errikatu-eran,
Aberri'tik jurun...!
bixi gara orain.

7
Aberri'tik jurun...!
beti otsailian:
jorrailik ez inun
atzerri-bidian.

Aberrit'ra begira

1
An agiri da, an urrun,
ene aberri maitia.
Bertara nai, ta ezin jun
ertzita dot, ba, bidia.

2
Ene lo-gela leyotik
lo dagidanaz batera,
itxaso astina dakust nik
Bidasoa'ri mosuka.

3
Ur-gane berein ixari
ego ariñak zabalik,
jolas-gura firi-firi
aixia bailiran dabiltz.

4
Bidasoa'ren bestalde
agertzen yataz, an urrun,
Jaizkibel ta Guadalupe,
Ondarrabi eta Irun.

Euzko-seme errikatuben abestija

1
Otsallak billustu
ebazan zugatzak,
jorraillak orritsu
jantzi dituz danak.

2
Euren ostorlegi
tarte ostenduta
berein baso-txori
dabiltzab abeska.

3
Zorunez zoruntsu
eztira aspertuten
maitasun-kabitxu
beruak egiten.

4
Maitasun-kabijak
guk be ba-genduzan,
baina gixa-deungak
galdu euskubezan.

5
Orain kabi bako
txotijen antzera,
ene, zenbat euziko
bixi ete gara...!

6
Ez poz ta ez zorun
errikatu-eran,
Aberri'tik jurrun...!
bixi gara orain.

7
Aberri'tik jurrun...!
beti otsailian:
jorrailik ez inun
atzerri-bidian.

Aberrit'ra begira

1
An agiri da, an urrun,
ene aberri maitia.
Bertara nai, ta ezin jun
ertzita dot, ba, bidia.

2
Ene lo-gela leyotik
lo dagidanaz batera,
itxaso astina dakust nik
Bidasoa'ri mosuka.

3
Ur-gane berein ixari
ego ariñak zabalik,
jolas-gura firi-firi
aixia bailiran dabiltz.

4
Bidasoa'ren bestalde
agertzen yataz, an urrun,
Jaizkibel ta Guadalupe,
Ondarrabi eta Irun.

3
Zure arpeiko tximurretara
natortzunean mozu ta mozu,
bekaitzez iñok kendu ez-nayan
altzo zuloan gordeko nozu.

4
Aulki txikian apatx-eginda
altzora deiten daustazunean,
ni aurtzikitxu biurtuko naz
amatxo zure altzo-ganean.

5
Ta txitatxuak oten diran lez
txitamearen egapetxuan
ni be alantxe ongo nazi ama
gordeta zure altzo-zuloan.

6
Bai, amatxu bai, altzo zuloan,
ama-altzoan gordeta beti
zeuri mosuka bixitz osoan
ortixik zeure altzo maitetik.

**Arrate'tar Erraimun'i bere jayotza urteurrenean.
1944 dagonila'n 31.**

1
Goizean-goiz jagi naz
ta leyora urten,
leyotik so egiañaz
landea ikusten.

2
Landea yori dakust
txoriak abeska,
eta izadi-oro
zorion opaka.

3
Izadiaren gaurko
zorion-opatze
maitagarriko oneik,
norentzako ote?

4
Txori abestietan
ona, zer dantzugun:
—Gaur Erraimun jaia da
ta ospatu dagigun.

5
Beraz ospatu daigun
gaur Erraimun Deuna
Arrate'tar Erraimun
jayo zan eguna.

6
Maite-su egoetan
zure biotzera
bezuzik ederrenak
gaur elduko dira.

7
Zorion oparirik
maitagarriena
zure sendiarena
izango da baña.

8
Lenengo oparia
emazte mosua
maitasunaren ikur
gomuta gozua.

9
Eta onen jarraian
Itziar, Arantza,
Iñaki, Mikel Bego,
Montxu ta Joseba.

10
Bata-bestien leyan
danak zuganduta,
euren beso leunakaz
sendo oratuta.

11
Batetik laztan eta
bestetik mosue
aurpegia mosuka
kenduko deutsue.

12
Eta amatxu zarra?
oi, ama laztana!
maitasunaren kabi
ta biotza dana.

17
Beraz emen yoatzun
zorion agurra,
ontzat artu Erraimun,
egizkoa da ta.

13
Zuretzako kolkoan
daukan maitasunaz,
zelan astu zu jayo
zintzazan egunaz?

14
Eta zure anaiak?
ta zure arrebak?
Gregori Anaya ta
beste enparauak?

15
Oi, zure egunean
guztiak or dozuz...!
Erraimun jan biarrik
besarka ta mosuz.

16
Emazteak, ta nik be,
oi, Erraimun maite!
gure gomutatzue
zugandu nai geunke.

Iru Bakaldun

1
Iru Bakaldun sorkaldekoak
goi-izarraren argira,
bezuz ederrak opatzen doaz,
Josu'ri Belen-Urira.

2
Bezuz-kutxeak ondo beteta
urra, mirra eta intzentoz,
askako lasto-ziazkatxura
iru bakaldun yoakoz.

3
Maitasunaren iturburua
gentzadun Jaungo-Semea,
Zu zara gure itxaropena,
Zu, gure zorun-kutxea.

4
Aita-Jaungoikoa'ren Semea,
gure gaizkatzalle Josu,
Belen'go lasto-siaskatxuan
pozez gurtuten zaitugu.

7
Obabatsua lo-lo-lo,
Ama'k abestuko deutso,
Zeuk gura dozun orduen baten,
biok eingogu lo ta lo.

5
Mendi-goietan edurra da-ta,
izotza dago Belen'en.
Josu billoizik leitzen dago-ta,
estaldu daigun len-bai-len.

6
Soñeko bero apain-txukunez
jazten danean oparo,
Ama Miren'en altzo gozoan
Josu'k eingo dau, lo-lo-lo.

Kristoren Biotzari

1
Ilda, zagoz, ilda;
orregaitik, zuri,
Josu-Biotz, orri,
dasketzudana da:
Itxarrik asketsi,
daistazula niri,
lotan zigorkada
etorriko ba-da,
[?] be nigana.

2
Lo zagozanean
itxarrik zauzala
zeuk ba-diñostazu,
negarrez abeska
diñardutzunari
ezer entzun baga

geratzen zaranik,
nok, sinistu, bada?

3
Baña, Jauna, berak lo dagianarren,
maitasuna itxarrik bizi da;
Ildakoa ezta, ba, maitasuna,
maitasunarren il zarana, zeu zara.
Maitasunarren il zara gurutzean,
zeu zara ba, Josu! ta maitasunean
bizi zareana, be, Josu maite zeu.

4
Dardayak, ene Urtzi,
biotza zauritu al izan baeban,
Zeu lez bizitzea dan maitasuna
ezin il izan eban.

5
Lo zagozanean
itxarrik zauzala
ba-diñozu Jauna...
negarrez abeska
diñardutzunari
ezer entzun baga
geratzen zaranik,
nok zinistu bada...?

6
Baña Jauna, Berak lo dagianarren
ezta maitasunak,
beragan loaren asterrenik izan
Josu maitasuna
beti ixarrik dau
bizitzadun da-ta.

7
Maitasun deunarren
il zintzana, Jauna,
Zeu Kristoren Biotza
Deun ori, Zeu zara.

Josu eta Eskalea

(“Jesus y el mendigo”ren itzulpena)

1
Josu ludian ebillanean,
bide batetik joyala,
bidazti txiro txarto jantzi bat
illunabarraz batera,
Josu-aurrera aurkeztuagaz
belaun biakaz lurrera
jausiaz, alai eta itunez
itandu eutsan onela:

2
— “Zu zara Josu Nazarendarra,
Josu maitale on-ona...?
Oi, Zure billa zenbat ibilli
nazan ni, Josu laztana...!
Egíñen on bat ein dagistazun
otoika nator Zugana...”
(itzok esanaz zauri gordiñez
agertu eutsan soin dana).

3
— “Erririk-erri nabil zauriok
erakutsiaz, errukiz
nigandu eta osagarri bat
iñok zuzendu alba-leist.
Baña tamalez (zotin artean
iñoan miñez beterik):
arrika eiten deuste gizonak;
txakurrak aginka atzetik”.

4
— “Baña oi, Josu, geide-zalea!
Eltzen zarean tokira
zorianaren ezti gozoa
neurrige Zeugaz batera
daroazuna zaran Jaun ori,
ene zaurioi begira
jarri zakidaz, eta zauriok...
baster osatuko dira!”

5
— "Arantzak loratuten dakien
Zure eskuen ukutu
txikitxu batek nire zauriok
osatu egingo ditu.
Beto, ba, Josu, esku doneok,
zauriokana luzetu...!
Ta euren ezti-osakayakaz
osatu naizu, osatu".

6
Olanxe, itun-itun oguzi
ebazan itzoik, txiroak.
Eta orduan, errukiaren
iturria da Jaungoak,
gentza-mosu bat buru ganean
irarriagaz, besoak
zabaldu eta besarka batez
arrotzen dautsaz malkoak.

7
— "Zure zoritzar guztiakaitik
Nire malkoen ezti,
zure soin-gane aldatuko dot
ene eskale maitia".
Itxoik asanaz negar ta negar
asiar Jainko Semia,
malkoen uraz bidaztari
busti eutsan soin guztia.

8
Ta Josu-negar malkoen uraz
ortze oztiña negarrez
asi zan eta, donoki-izarrak
eskale-gane alatzez
jatsi zirean; ta onen jantzi
urratu zarrak izarrez
apañdutean, diz-diz eiteben
ziran argi ta ederrez.

Egun gomutagarria

1
Ogetabosgarrengo
urtiaren gaba,
gaur izan bai-litzonan
gomutan yodana.

2
Zabaldu nazaneko
ludira besoak,
negarrez jarri aunan
lotazil-mosuak.

3
Ortzean izar bat lez,
lurrian izotza;

aur jayoparrientzat
a gabaren otza!

4
Ama-kolkon, baña,
toki ona, zonan,
ta ik berogarria
antxe izan onan.

5
Ordutik eta geyau
guraso-biotza,
iretzat izan dona
maitasun baratza.

6
Iretzat izan dozan
gure poz, maitasun,
i loratutiarren
lerden, guri, mardul.

7
Iri emotiarren
bizitza-gun danak,
zimelduta yauzana
ire aita-amak.

8
Baña Urtzi-legia
au ba-dona, maite,
Goiko Jaunaren Naya
zuzen bete beite.

9
Ire aita ta amaren
zorun pozkorrena,
mardul, lerden, zoruntsu
i aztea dona.

10
Gaur, amazortzigarren
ire urte aurren
bidalkuten dautanan
aita-besarkadan,
iretzako yonadan
maitebizitz-guna
besarkada onetan
aurkituko dona.

11
Agur, lotazil-lora,
larrosa usaintsu.
Agur, ene zoruna,
agur, Itziartxu!

Ire aita, Imanol
1943'gko. lotazilla-19'an

Nere ama
(Bere lenengo il urteko gomutakitzat)

1.
Biotzez maite neban ama-bat,
une danetan gogoratzen yat,
da ezin yat aiztu beinbe!
Ontxe da urtebete ilzala,
seme-batentzat au da tamala!
Geratzia amarik gabe.

2.
Nere amatxu bizi zanian
bere basetxe kutun maitian
sendikuakaz batera,
pozik-be-pozik nintzan yoaten,
ama neuria besarkatuten,
basetxe kutun maftera.

3.
Oraintzurengo, gaur da urtea,
ikus nebala ama neurea...
Baña... biziya galduta!
Bere gelatik, ikusi nuan,
lau gizonezko zelan eruan
eben, ilkutzan sartuta.

4.
Ain maite neban basetxe atan
eztakit nik zer yazoten yatan
ama ilzan ezkeroztik:
naizenerako aterantz eltzen,
bat-baten yataz poz danak kentzen,
biotz-barren da gogotik.

5.
Basetxetxura eldu artian
yoranez noya bide guztian
an Ama ikustekotan:
lenago egoten zan tokian,
gero ikusten eztotanian,
negarrak damost askotan!

6.
Ama nerea beste amakaz,
etzan bardiña gauza danakaz,
izakeraz, ta-abar ta-abar:
lagunurkoeu maitati utsa,
gogoko eban kistar-uzkurtza,
da beti ondo ein biar!

11.
Lau gizonezko zure gorpuaz,
yarraitu eben bide osuaz,
beti naz gogoratuko!
Bide artatik zeugandu naiten,
ustebageko egunen baten,
or nozu ama... betiko!

(1927ko, Iralan 22n)

7.
Ama batzuri, curen uliak
margoztuten da, gaztegoriak
galtzen deusoe zentzuna:
nire amaren ule urdiñak,
guzur-margozge ziran apañak,
da soña barriz txukuna.

8.
Eregin baten atzamar zuri
zainduen-zainduz txukun da guri
urrez yosita badauz be,
nere amaren atzamar balzak
lan-ezaugarritz hijor ta latzak,
ederrau ziran askoz be.

9.
Ama batzuek atxurdiñezko
ilobietan sartu-eta-asko,
sendijak, aitzuta daukoz:
nik amagaitik barriz, pozarren,
lur zuilo baten dagan arren,
otoiz egiten dot gogoz.

10.
Ama nerea zureganako,
nere biotza erretan dago,
maitasunezko gar sutan.
Zelan ez maite, nik ugatza-artzen
neutzun artian iñor maitatzen
zeuk irakatsi bazeunstan?

Gabon abestiak

1. Belen'go estalpean
abere artean,
umetxu bat jayo da
Gabon-gauerdian.
Asto-idiak daukoz
alde bakotxean,
arnasaka Josuri
oztu ez daitean.
2. Goyezan Belen'era
artzain da Bakaldun,
Jaungoiko-semeari
egitera lagun.
Bere Soin-Doneari
maitez egiñaz mun,
Zeru-lurren Jaubetzat
ezagutu daigun.
3. Guazen, ba, Belen'era
ta ikusi daigun, an,
Josu jayoparriak
ze Jauregi daukan.
Zeru lurren Jaubea
laztozko siaskan
billoiz-billoizik dago
aberien askan.
4. Suaren apur-bat bez
pizkat berotzeko
ezta soñeko bat be
soña estaltzeko...
Zeru-lurren Jaubeak
"lolo" egiteko,
abere-askatxu bat...
bestenik ez dauko.
5. Arnasa bai arnasa
asto eta idi,
bata bestean leyan
yabilkoz Josu'ri,
ta Aurraren gurasoak
Joseba ta Mari,
maitasunez begira
daukaz adi-adi.
6. Jaungo-Semea da-ta
gotzonak, zeruan,
igarri dabenean
Josu nun dagoan,
euren egotxuakaz
egaizka beingoan
Belen'eratu dira
Josu-inguruan.
7. Donokitar Gotzonak
alai, abeslari,
"Aintza Zeru goietan!"
—diñotse Josu'ri—
"Eta lurrean gentza
zorion iturri
asmu oneko diran
zintzo guztieri".
8. Soin txiki gurixuaz
Josu dan polita!
Pozez zorutzen da bat
bera ikusita,
geure irakasle da
eta geure Aita,
lurrera jatsi dana
gu gaizkatu nai-ta.

**Arrarte'tar Gergori Josu-lagun anayari
bere bizitzako 51.garren jayotegunaren gomutak**

1. Egunon! Ene Arrarte,
egunon! Ta zorionak:
berrogeitamaika urte
gaur osotuten dozuz, ba.
2. Goizeon, pozez beterik,
zure amatxu maiteak,
esango eban: Gergorik
gaur egiten dauz urteak".
3. Zure jayoteguneko
irribarre ta negarrak,
gaur danak gogoratuko
dauz zure amatxu zarrak.
4. Aizo ganera jasota
"laralan" eta "lurulun"
abestuz gomutauko da
zelan dantzan eraiteutsun.
5. ... Eta mutikotxutako
gaiztakeri, jolasak be,
gaur barrero gomutauko
dauz ezebe aiztu bage.
6. ... Ta beteko dau ondiño
aur txikitxua zintzala,
donokian be zu baiño
gotzon oberik etzala.
7. Ta gomutaz pozarren
jagiko zan gaur goizean,
berrogetamaikagarren
zure jayoteguncan.
8. Zelan poztu ez zure ama
semearen zorionaz,
zure aide be enazana
neu bardin poztuten ba-naz?
9. Txikitxutan amarentzat
gotzona izan ba-zara,
gizondutean, niretzat,
done ongile bat zara.
10. Eskenak zuri, Arrarte,
emen Gergori-Etxean
pozik bizi naz gaur arte
Josu-Anayen artean.
11. Ene ongile maitea
enaz inoz aspertuten,
zuretat bizi luzea
Goikoari eskatuten.
12. Beste berrogeitamaika
urteko bizi luze bat,
Goiko Jaunari otoika
eskatzen deusat zuretzat.

13.
 ... Gero...?
 Gero donoki ederra
 an, Goyan, gotzon artean,
 betiko Atsedenera
 Jaunak deitzen deitsunean.

14.
 Orra, or, ene gurari
 benetakoa, zuretzat;
 ontzat artu ba, ba, Gergori,
 ondo egiñen saritzat.

Deusto, 21-10-44.

**Ames bat
 (Orain urte batzuk dirala,
 Argentinan euzkeldun batek egina)**

1.
 Ni bart arratsean inoiz ez legez
 nekez beterik nenguan,
 ene txakira lo egitera
 egin nintzanian juan,
 ogetxu zuri bigun apatzean
 leku gozua eguan:
 inoiz ez lako lo ezti batek
 bertatik artu nenduan;
 a zan amesan atseginkorra!...
 Etxat aitzuko beinguan!...

2.
 Neuk bere zelan ez nekiyala
 une batetik bestera,
 Tximista bat lez igaro nintzan
 ene Aberri maitera!
 Urreraturik jaiyotetxeko
 kutuna yatan atera;
 — yagi zaiteze! — didar ein neutsen
 atia edegitera!...
 Nor da ba atian? — erantzun eusten
 etxeko danak batera.

3.
 Nor daun atian!... Ezautu ez ni
 zeuen Imanol izan da?...
 Zuk bez amatxo?... zuk bai; zelan ez,
 zeure kutuna nintzan-da!
 —Seme bat dogu —erantzun eusten
 ta bera Ameriketara da
 eban arorik ederrenian
 euzkel-erriitik juanda;
 ixildu ziran: Gure Imanoltxu
 urrun bizi da! Esanda.

4.
 Erbestetutzat dozun semia,
 ama neu nozu, neu ama!...
 Beñola baten... —azketsi arren!...
 Altzotik alde neutsuna.
 Orduko antzik eztot gaur bape...
 adikorrau dot zentzuna.
 Erbeste-ziar ezautu dot ba
 niretzat zaran biguna;
 zeuria naz-ta... ez ataz utzi
 zeure semetxo kutuna!...

5.

Au enzutian, etxeko danak,
bata-bestiaren leiyan,
zeñek ariñau etor yatazan
atia edegi naiyan.

Amatxok barriz, pozan pozagaz
zer egin bere ezekiyan:
laztan gozo bi emonda gero
buruan eta arpegiyan,
Inostan: — seme barri-onak dauz
zu jaiyo ziñan erriyan!...

6.

Atia edegi eustenian
gaba, ta belu-belu zan;
nekatuta be bai-nenguan ta,
begiyak lotan neukazan.

Amatxo barriz etzan ixiltzen
izparrak esan ta esan:
azkenetako bildurtu nintzan
zoratu egin este zan!...
Ta esan neutsan: —ordua dogu,
ta ama ogera goiezan.

7.

Au aditzian amak arturik
argitxo bat eskuetan,
gelara eldu arte guztiyan
ondotik jarraitu eustan.

Ogetxo zuri apatz gozuan
etzan nendun bigunetan;
Gabon Imanol, ta biyarrarte;
esan eta alde egin eustan;
— Neuk bere bardin; — erantzun eta,
lo geratu nintzan bertan.

8.

Nire orduko gau eztitsua,
beingo baten igaro zan,
goizalderako nire begiyak
zabal zabalik egozan.

Eresi samur alai gozuak
txakira zoli etozan:
leiyora bizkor atara nintzan
zer gertatuten ete zan;
ta txoritxoak zugatzik zugatz
pipirripika ebizan.

Julen Urkiza - Luis Baraiazarra